

DESIOA TRANBIAZ DATORRENEKOA

Karlos del Olmo

DESIO IZENENKO TRANBIA

Egilea: Tennessee Williams

Itzultzailea: Xabier Payá Ruiz

Alberdania&Elkar

Literatura Unibertsala

2005

Jatorrizko izenburua: *A Streetcar Named Desire*

Thomas Lanier Williams Mississippin jaio izan zen, baina Missouriiko Saint Louisen eman zuen gaztaroa. Iowako Unibertsitatean Filosofia eta Letretako lizentzia eskuratu zuen. Hamalau urterekin, zegoeneko, ondo konturatuta zegoen idaztea oso baliagarri zitzaiola batere eroso gertatzen ez zitzaien benetako mundutik ihes egiteko. Berehala izan zuen idazkuntza gordeleku, koba, babes... Munduan beste asko legez, hainbat ofiziotan saiatu egin zen, 1945. urtean Broadwayn *Kristalezko zoota* estreinatu zioten arte. Hortik aurrera, arrakasta maiztu zuen, hainbat gorabeherekin, jakina. Antzezlanek eman diote ohorezko kokalekua literatura unibertsalean. *Desio Izeneko Tranbia* (1947) Estatu Batuetan idatzitako antzezlanik onena ei da. Hari esker antzerki alorreko Pulitzer saria eskuratu zuen. Bigarren Pulitzer *Cat on a Hot Tin Roof* obrak eman zion. Gerora, hil arte, gogotik saiatu arren, ez zuen maila horretako arrakastarik ostera ere lortu. Zineak berehala baliatu zituen antzezlanotako elkarriketa poetiko eta ikurrez bete haiek, pertsonaia ezin originalagook, pelikula gogoangarri batzuk sortzeko. AEBko Hegoalde Sakona dekadentzia, nostalgia eta sentsualitatearen eszenario bihurtu zuen. Topiko guztietan legez, lanetan nola, bizitzan ere hala gertatu zitzaion egileari, eta hegoaldeko giro itogarri hartatik ihes eginda, New York izan zuen hil ohantze, haren larruan garaiko giro homofobiko eta arrazista jasanda. Memoretan homosexualitatea, drogak eta alkohola zirela kausa izandako arazoaren albiste eman zigun.

Gauza jakin bezain igarria da antzezlanak ez direla itzultzen, teatroak ozenki esatekoak izanik, moldapena edo, egun esaten den legez, "lokalizazioa", tokian tokiko kulturetara egokitu beharra dutela beste ezein itzulgaik bainoago. Xabier Payá Ruiz itzultzaile gazteak unibertsitateko ariketa moduan hasitako lanetik abiatuta euskal antzokietara zailtasun handirik barik erroteko moduko itzulpena sortu du. Eta ez da munta txikikoa! Itzul molderen bat edo beste agian hobetu litekeela? Baliteke, baina... zein lanetan ez? Edozelan ere, Xabierren itzulpenak ez die zorrik batere uzten bildumako beste obrei.

Literatura dramatikoak berezia da, ahozkotik hurbilago dago eta lar irakurtzen ez duen jendeak ere atseginez leitu ohi du. Tennesseeeren arabera, antzerkiak garaian garaiko gizarteetan aurrerapen artistiko ikaragarriak lortu ditu, giza jokabidearen eta esperientziaren armairu, mandio eta sotoak zabaltzen, argizatzen eta aireberritzen dituelako. Horri gagozkolarik, esan beharrean gaude Literatura Unibertsala bildumari oraindik ez diola inork marka kendu, egun euskaraz antzezlan gehien argitaratzen duen bilduma izaten dirau. Gertaera pozgarria, beste argitaletxe eta bildumen aldetik kezkarria bada ere.

Desio izeneko tranbian didaskaliak, akotazioak, nabari-nabariak dira, eduki poetiko eta iradokitzaile handikoak. Kritikari batzuek Tennesseeeren lanetako emakumeetan, idazle gay gehienon lanetan legez, idazlearen beraren proiektzioak, itzalak, *alter ego*ak ikusi ohi dituzte. Beste topiko bat? Nork jakin! Idazleok letra guztietan lorratza.

Poetikotasunak tristura, mina, malenkonioa dakartza oinarri, tartean, maitasuna eta maitatzeko ezintasuna, heriotza, sexu frustrazioa, gizarte arauen presio eta mugakizunak eta denboraren joan higitzailea ere tarteka-marteka indartsu agertzen direla. Sarritan balirudike elkarriketan baino, pertsonaiok bakarriketa paraleloetan dihardutela, besteri entzuteke. Eguneroko bizitzan legetxe, azken buruan, den-dena hildakoei loreak erostean geratzen da.